

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	IL0069	Ametx erakunde autonomoko erabiltzaileen eskariak, kexak, iradokizuna eta eskerrak
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Erabiltzaileei, eta herritarrei orokorrean, Ametx erakunde autonomoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko kexak edo erreklamazioak aurkezteko aukera eskaintzeko, eta baita hainbat motatako eskariak egiteko eta eskaintako zerbitzuengatik eskerrona adierazteko ere.

NORK ESKA DEZAKE?

Ametxek kudeatutako instalazioen eta zerbitzuen erabiltzaileek, herritarrek, orokorrean.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E076 Ametxeko erabiltzaileen eskariak, kexak eta iradokizunak](#)

Egindako ordainketak itzultzeko eskariak direnean, dagozkien ordainketa egiaztagiriak eskatu ahal izango dira.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Zelaieta zentroa](#)
Zelaieta zentroa
Zelaieta parkea z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

Telefonoz:

- Ametxeko telefono zenbakia
946300650

Telematikoki:

- [Ametx-en web orrian](#)

Posta arrunta:

- Zelaieta zentroa posta arrunta
Zelaieta parkea z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Zerbitzuak eman edota udal jarduerak burutzeagatik sortutako prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.](#)
- [Zelaieta Zentroaren erregelamendua](#)
- [Larrea kiroldegiaren erregelamendua](#)
- [40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren araubide juridikoari buruzkoa](#)
- [10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituena](#)
- [39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzkoa](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

- Dokumentazioa erregistratu, HAZak egingo du.
- Dagokion Sailerera bidali.
- Ebazpena, hala denean, eta erantzuna edo jakinarazpena interesatuari.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Ametx erakundeko presidentea

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ametx erakunde autonomoa - Gerentzia

OHARRAK